

Batezbestekoak

Batezbesteko aritmetiko sinplea

Datu isolatuak: datuen batura zati lagin tamaina

Maiztasun taula: $x, n \rightarrow nx$ zati n batura

Batezbesteko aritmetiko haztatua

Noiz? Datuek garrantzi desberdina dutenean, portzentajeak

Nola? [Haztapenak edo pisuak bider datuak] zati haztapenen batura: $\sum wx / \sum w$

Portzentajeak (logikaz): kalkulatu portzentajeen elementu kopurua, zati totala

Batezbesteko koadratikoa

Noiz? Erroreak

Nola? [Batu erroreak ber bi] zati $n \rightarrow$ egin erroa

Kontuz: batzuetan erroreak kalkulatu behar dira, nominal/estandar delakoarekin alderatuz: $e = x - nom$

Batezbesteko geometrikoa

Noiz? Hazkunde-tasak, interes-tasak

Formula erabili bakarrik tasak banaka ematen dituztenean. Ez ahaztu bukaeran 1 balioa kentzea.

Tasen ordeztu, balio totalak ematen badituzte, egin azkena/hasiera, ber (1/urte kopurua), ken 1

Batezbesteko harmonikoa

Noiz? Abiadurak, errendimenduak

$H = n / \sum 1/x$

Errazagoa: abiadura=espazioa/denbora;
errendimendua=ekoizpena/egun edo ordu kopuru totala (langile edo makina denak harturik!)

Mediana

Datuak ordenatu behar dira (txikitik handira)

Datu isolatuak: erdiko datua. Maiztasun-taula: interpolazioa.

Datu atipikoez ez diote eragiten. Beraz, sendoa da.

Moda

Gehien errepikatzen den balioa, maiztasun handiena

Maiztasun-banaketa bateko gailurra da (histograma, barra-diagrama, ...)

Multimodala (moda anitz) izan daiteke: moda absolutua eta moda erlatiboa